

IPARRAGIRRE LIBURUAREN AURKEZPENEAN

Bilbon, 1988-III-18

Fr. Luis Villasante

Euskaltzainburuaren hitzak

Iberdueroren Zuzendari, Garrido jauna.

Jaun-Andreak:

Zuzen eta bidezko ezezik, eginbidezko ere bada Euskaltzaindiak Iberduero-gandik azken urteotan jaso izan dituen laguntza gaitzak aitortzea eta eskertzea, eta hala egin nahi dut une honetan.

Oker ez banago, dena hasi zen Aita Imanol Berriatua ahaztu ezinaren har-emanekin. Euskarazko klaseak ematen zizkien Iberdueroko langileei. Gero, berriz, arnasa handiko plangintza bati lotu zen. Nola irakatsi hizkuntza hau txikitari ikasi ez zutenei, eta irakatsi ere nola nekerik gutienaz eta onurarik handienaz egin? Hauxe zen Aita Imanolek buruan zerabilen ametsa. Eta hala asmatu zuen berak Oinarrizko Euskararen plangintza hura, Euskaltzaindiak bere garaian onartu zuena.

Esan behar da aparteko dohainez jantzia zela Aita Imanol ekintza hau aurrera eramateko. Euskara sustraitik menderatzen zuen, hizkuntzak irakasteko —batez ere hizkuntza biziak— aparteko bizitasuna zuen. Eta, noski, euskaragana errotikako maitetasuna. Diotenez, haurtzaroan, zorigaiztoko eraztuna —anilloa— eramatea tokatzen zitzaion beti —euskaraz hitzegiteagatik—, eta hala euskarakin ezkondu zen betiko.

Berriatuaren obra handia, Euskaltzaindiak onartu ondoren, Iberduerok argitaratu zuen, bada, eta argitalpen horiek arrakasta ezin hobea izan dute. Orain, berriz, Berriatua hil zelarik eta egoera ere bestelakoa delarik, uste dugu Iberduero eta Euskaltzaindiaren arteko lokarriarentzat beste ildo edo bide batzuk bilatu behar direla, eta gaurko agerbidetzat horra non aurkezten dugun liburu berri hau, hots, *Iparragirre*.

Askoren artean egindako lana da, eta ikerketa-mailatakoa. Izan ere, hain aspaldikoa ez izanarren, puntu ilun asko zegoen Iparragirreren bizitza eta obran, eta liburu honek argia franko egozten duela uste dut puntu ilun horiek argitzeko, edo lehendik nolabait erdizka jakina zena osatzeko.

Horra, bada, Iberdueroren laguntzari esker, Euskaltzaindiak argitaratu ahal izan duen liburu berri, txairo eta ongi egituratua.

* * *

Es para mí motivo de gran satisfacción, al tiempo que cumplimiento de un grato deber, el reconocer y testimoniar públicamente la extraordinaria ayuda que la empresa Iberduero ha prestado a la causa de la lengua vasca y a la Academia fundada para guiar de algún modo los esfuerzos por la rehabilitación de este idioma, su puesta al día, etc.

Todo empezó, creo, con las relaciones del inolvidable P. Imanol Berriatua (q.e.p.d.), que impartía clases de euskara a los empleados de la empresa, y la presentación por parte del mismo de un plan ambicioso para enseñar euskara a adultos con el mínimo dispendio de energías y el máximo de rendimiento; es decir, el llamado plan de "Oinarrizko Euskara" o euskara básico. Iberduero, tras la aprobación del plan por la Academia, ofreció su generosa ayuda para la publicación de los textos, libros del profesor y del alumno en sus 3 grados con su aneja serie de lecturas apropiadas a los dichos 3 grados, etc. El montante de estas publicaciones ha sido considerable y hay que decir que han tenido una gran aceptación por parte del público. Nuestra encargada de ventas de libros suele decir que, aún hoy, los libros nuestros que más se venden son los de "Oinarrizko Euskara". Esto quiere decir algo y mucho. El P. Imanol, que por motivos fácilmente adivinables —pues era muy religioso— parece que solía decir que quería morir en Tierra Santa, tuvo la suerte de que se cumpliera este su anhelo. Yo confío en que él desde arriba nos ayudará a fortalecer estos lazos entre Euskaltzaindia e Iberduero, que él inició.

"Oinarrizko Euskara" cumplió su misión, yo creo que con un saldo altamente positivo. La recuperación del euskara por parte de adultos que no aprendieron esta lengua en su infancia es ciertamente una labor difícil, que exige una técnicas y unas cualidades en el guía no comunes o corrientes y que ciertamente el P. Imanol poseía, aparte de su conocimiento profundo de la lengua vasca y de los métodos que se aplican en otros países o lenguas con problemas similares, como p. ej. el hebreo en Israel o la lengua inglesa.

Al faltar el P. Imanol y después de haberse completado el plan o programa de publicaciones por él previsto —y aquí debo dar las gracias a su continuador Imanol Unzurrunzaga y colaboradores— esta iniciativa ha quedado concluida en cierto modo. Tras la autonomía el panorama para trabajar en este campo también se ha modificado.

Pero el vínculo entre Iberduero y Euskaltzaindia no por eso se debe dar por cerrado. Nuestro deseo es que prosiga y se le busque un cauce nuevo. Y espero que esto se conseguirá, pues por ambas partes existe —creo— la misma voluntad.

De momento, y como un botón más de muestra de esta relación, tenemos hoy el gusto de presentar al público la obra sobre Iparragirre, realizada por un grupo de especialistas y editada también gracias a la ayuda de Iberduero.

Iparragirre es una de esas figuras a las que el destino les asigna un papel único; a él le asignó el de ser vocero y representación de la Euskal Herria tradicional. Hasta hace poco —y aún hoy— siempre que los vascos se reúnen, los cantos de Iparragirre son los que afloran espontáneamente. Pero su figura histórica había quedado un tanto desvaída. Desde que Salaverría en 1932 publicara su obra *Iparragirre el último bardo*, puede decirse que apenas se había

avanzado en la investigación sobre él. Creemos que este libro que hoy sale a la calle, constituye una aportación seria, positiva y valiosa para la clarificación histórica de su persona y obra, de su época, de su producción poética y musical, etc.

Pero sobre el nuevo libro nos hablará más de propósito con su particular competencia nuestro vicebibliotecario José Antonio Arana Martija, que además es uno de los autores de la obra.

A mí sólo me resta agradecer a los autores que han participado en la obra y por supuesto a Iberduero por su ayuda, sin la cual el libro no se hubiera publicado y se hubiera malogrado el esfuerzo. Pero antes de pasar al tema del nuevo libro, pido al Secretario de la comisión de publicaciones que lea la relación escueta de los libros y ejemplares que Euskaltzaindia lleva publicados con la ayuda de Iberduero.

* * *

Eta azkenik, eta gaurko ospaketa honi bukaera emanez, hona non eskaintzen dizudan Iberdueroren Zuzendari jaun horri, oroigarri eta esker agergarri gisa, Euskaltzaindiak borondaterik onenaz eman nahi dizun plakatxo hau.

Gauza guti da, badakit, baina gure eskerronaren testigu edo lekuko izan nahi du. Torizu, bada, jauna.

